

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

ZUZENKETA-ORRIA

	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
IRAKURMENA Hiru ariketa. Hirurak egin beharrekoak. Guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen.	20 (25 erantzun zuzen)	10 (13 erantzun zuzen)



4. HE / IRAKURMENA

■ 1. ariketa

	EGIA	GEZURRA
1.		G
2.		G
3.	E	
4.	E	
5.		G
6.		G
7.	E	
8.	E	

■ 2. ariketa

1.	C	4.	B	7.	A
2.	A	5.	C	8.	C
3.	C	6.	B	9.	A

■ 3. ariketa

Hutsunea	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak	G	I	E	A	D	F	B	H

C aukera sobera dago.



TESTU OSOA

■ 3. Ariketa

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

HIRU EKINTZA ALDI BEREAN? NAHI ETA EZIN

Garunaren funtzionamenduari esker, aldi berean bi gauza egiteko gaitasuna dugu gizakiok (gutariko zenbaitek bai, behintzat). **Alegia, eginkizun batzuk egiteko gure burmuina “zatitu” egiten da, eta garun-hemisferio bakoitzak zeregin baten ardura hartzen du bere gain.** Aldibereko hiru zeregin, aitzitik, larregi lirateke, haria galduko baikenuke.

Une berean gidatu eta hitz egiteko gai gara, baina momentu horretan ez gara gauza izango GPSa manipulatzeko. Sukaldean janaria prestatzen gabiltzanean telefonoz aritzeko gaitasuna ere badugu, baina ez, ordea, une horretan bertan egunkaria irakurtzekoa. **Horrek guztiak badu, baina, bere azalpena: burmuina ezin da eginkizun guztietan behar bezala kontzentratu.**

Gure garunean halako egoeretan zer gertatzen den jakin nahian, ikerketa sakona egin dute Parisko Medikuntza-ikerketarako eta Osasunerako Institutu Nazionalako ikertzaile batzuek, eta emaitzen berri *Science* aldizkariak eman du berriki. **Bada, azaldu dute berezkoa dugun eta zuzentzen zaila den “fabrikazio-akats” bezala uler genezakeela gure ezintasun hori.** Ondorio horretara iristeko, erresonantzia magnetikoaren bidez osasun oneko 32 boluntarioen garun-jarduera behatu du ikertzaile-taldeak. Hitzien sorkuntzarekin zerikusia zuen ariketa bat egiteko eskatu zieten, eta arreta kortex zerebralean jarri zuten zientzialariek.

Boluntarioek ekintza bakar bat egiten zutenean, ikusi zuten garuneko lobulu frontala arduratzen zela jarduera horretaz. Zehazki, garun-hemisferio bietako eremuak zeuden eginkizunean kontzentratuta, helburua ongi erdiesteko. Baina, aldibereko bi zeregin egitean, lobuluek banatu egiten zituzten zereginak, eta garuneko hemisferio bakoitza jarduera horietako batekin lotzen zuten. **Pertsona eskuinetan, ezker-hemisferioa egiteko nagusiarekin lotuta zegoen, eta eskuinekoa, berriz, bigarren egitekoarekin.** Nolanahi ere, burmuinaren

“zatiketa” hori erabatekoa ez dela hauteman dute ikerketan. Hain zuzen, eremu jakin bat adi egoten baita egin beharreko zereginen banaketa koordinatzeko.

Ikerketan harago joan nahian, aldibereko hirugarren jarduera bat egin behar izan zuten gero boluntarioek. Eta, hamasei lagunetik bakar batek ere ezin izan zituen hiru zereginak taxuz bete. Zer gertatu zen? **Bada, hasierako bi ekintzetako bat bertan behera utzi behar izan zutela, hirugarren horretan kontzentratu ahal izateko.**

Horrek argitu du, beraz, une berean gehienez ere bi xede lortzera mugatuta dagoela gizakion garunaren funtzio frontala. **Eta, horrenbestez, hala uler dezakegu zergatik “blokeatzen” garen zenbait egoeratan;** adibidez, supermerkatuan eskaintzen dizkiguten hamarnaka txokolateren artean bakar bat aukeratu behar dugunean.

Aurretik egindako zenbait ikerketari esker, egiaztatuta zegoen gizakiok aldibereko bi ekintza egiteko gai garela; trebetasun horren “erantzulea” garun-azala dela ere jakina zen neurozientzialarien artean. Nolanahi ere, gehienak bat datoz gaitasun horren mugak nabarmentzerakoan. Hau da, ezin ditugu egin hiru gauza aldi berean. **Eta, egiazko arrakasta lortu nahi bada, gainera, beti izango da hobe eginkizun batean buru-belarri aritu bi zereginetan zentratu baino**

AEBko Utah-ko Unibertsitateak argitaratu berri duen beste ikerlan baten arabera, adibidez, biztanleriaren %2,5 bakarrik da benetan hainbat jarduera aldi berean arrakastaz egiteko gauza. **Adibidez, 40 lagunetik bakar bat izan daiteke “superpertsona”;** hau da, gidatzen doanean telefonoz hitz egiteko eta biak ala biak perfektuki egiteko gai.

AULESTIARTE, Izaro
Ortzadar, 2010eko apirila. Egokitua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

4HE-IR-ID-1Elh (B) Erantzunak